



EBAZPENA, Hezkuntza sailburuordearena, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ESKOLA 2.0 programaren funtzionamendu egokia arautzeko jarraibideak ematen dituen.

Eskola 2.0 programa iazko ikasturtean jarri zen abian, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasgeletan.

Programa hori egitean izandako esperientzia ikusita, eta programa egiteko hezkuntza-komunitateko hainbat sektoreekin iritziak partekatu ondoren, gomendagarria da zenbait jarraibide ematea, programaren funtzionamendu egokia arautzeko.

Ondorioz, hau

EBATZI DUT:

1.- ARAU OROKORRAK

Ekipo informatikoa (ordenagailu txiki eramangarria, bateria-kargagailua eta ordenagailua eramateko zorroa) finantzatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko aurrekontuak zordunduko dira. Beraz, Sail hori izango da aipatutako ekipoaren jabea, eta ikastetxea izango da ekipoaren gordailuzaina. Horrenbestez, ikasleek ikastetxetik irteten direnean ordenagailu eramangarria ikastetxean utzi beharko dute.

Esandakoarekin bat, ikastetxeak izango du ardura ekipoa ikastetxeko geletan dagoen bitartean ekipoa zaintzeko, eta egoki joko dituen neurriak hartuko ditu ekipoa seguru izango dela, kargatuko dela eta behar bezala mantenduko eta erabiliko dela bermatzeko. Horregatik, gomendagarria da ikastetxe bakoitzak material horren erabilera arautzeko arauak egitea, eta Antolakuntza eta Jarduera Araudira sartzea arauok, gero.



Irakasle taldeak erabakiko du une bakoitzean ikasleek noiz eta nola erabili behar duten ekipoa, hezkuntza-helburuetarako. Ondorioz, ekipoa ikasgelan erabiltzea aholkatzen da. Salbuespenez, ikasleek etxera eraman eta etxean erabiltzea baimen daiteke, horri buruzko atalean ezarritako baldintzak betez.

Software gehigarria aldatu eta/edo instalatzeko, eskaera arrazoitua egin beharko da, eta Ordezkaritza Organo Gorenak sinatu beharko du eskaera. Gero, Hezkuntza Saileko Informazio Sistemen Zerbitzura bidali beharko da eta zerbitzu horrek, aztertu eta gero, baliozkotu edo ukatu egingo du.

Baldin eskaera onartzen bada, Informazio Sistemen Zerbitzuak berak eskatuko dio mantentze-lanen ardura duen enpresari eskatutako softwarea instala dezala, bai eta ekipoa lehengoratzeko irudi berria sor dezala ere (software berriak ekarriko du).

Baldin eskaera onartzen ez bada, Informazio Sistemen Zerbitzuak erabakiaren berri emango ikastetxeari, eta ez onartzeko arrazoiak zein izan diren jakinaraziko dio. Halaber, egindako eskaera baliozko izan dadin zer egin behar duen ere azalduko dio.

Nolanahi ere, gogoan izan delitua dela egile-softwarea dagokion lizentziarik gabe instalatzea, eta legeak zigortzen duela.

2.- IKASTURTEAREN HASIERA

Hona hemen programaren egoera 2010/2011 ikasturte honetarako:

- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak: iazko ikasturtean emandako ekipo bera izango dute aurten ere. Baldin beharrezkoa bada, Hezkuntza Sailak hornidura osatuko du, matrikulazio-datuen arabera. Ikasturtea hasi eta gero beste ikasleren bat sartzeagatik aldaketak egiten badira, ikastetxeko zuzendaritzak horren berri emango dio dagokion Lurralde Ordezkaritzako Hornikuntza Zerbitzuari. Ikasle baino ordenagailu gehiago badago, ikastetxeak gordeko ditu ordenagailuak, erreserba-gisa.



- 5. mailako ikasleek ikasturteko lehenengo hiruhilekoan jasoko dute ekipoa. Hasieran, matrikulatu den ikasle beste ekipo emango dira. Hortaz, matrikula-kopurua aldatzen bada, aldaketa jakinarazi beharko zaio dagokion Lurralde Ordezkaritzako Hornikuntza Zerbitzuari, ekipoa ematen denean ikasle beste ordenagailu izan daitezen. Gero ekipo gehiago behar baldin bada, aurreko paragrafoan azaldutako prozeduraren arabera jokatu da.

3.- EKIPOA MAILEGUZ EMATEA

Salbuespenez, eta ikastetxeak berak araututakoaren arabera, ikaslearen aitak, amak edo tutoreak ekipoa ikastetxetik ateratzeko eskaera egin dezake. Horretarako, ebazpen honen eranskin gisa doan dokumentua sinatu beharko du, eta sinatzearen bidez ekipoa erabiltzeko eta zaintzeko ardura bere gain hartuko du.

Ikaslearen familiak izango du ardura tutoreari jakinarazteko ekipoa etxean duen aldian gerta daitezkeen matxurak, akatsak, behar ez bezalako erabilerak edo erabilera okerrak, eta gertakari horietatik erator daitezkeen erantzukizun oro bere gain hartuko du.

Oporraldian (Eguberriak, Aste Santua eta uda), ekipoa ikastetxean izan beharko da.

4.- MATXURAK

Ikastetxeko Zuzendaritzak izendatutako pertsonak Hezkuntza Sailak kontraturiko Mantentze-lanetarako Zerbitzuari jakinaraziko dizkio software- zein hardware-arazoak, eta zerbitzu horrek jazotakoa konponduko du bere bitartekoen bidez edo, kasuan kasu, fabrikatzailearekin kudeatuko du bermea.

Ekipoan egindako kaltea gaizki erabili izanaren ondorio bada, ikastetxeak ordaindu beharko ditu ekipoa konpontzearen gastuak; eta, konpontzea ezinezkoa bada, ekipo berriaren kostua ordaindu beharko du.



Ekiporen batek fabrikatzailearen bermeak estaltzen ez duen matxura badu, ekipo horren ordeztu berria eskatzeko honako prozedura honi jarraitu beharko zaio:

- Ikastetxeak Hezkuntza Sailari eskatuko dio matxuratutako ekipoaren ordeztu beste bat eman dezala, eta harremanetan jarriko da dagokion Lurralde Ordezkaritzako Hornikuntza Zerbitzuarekin.
- Hezkuntza Sailak ekipo berria emango du, eta ikastetxearen ekipamendurako aurrekontutik 300 € kenduko ditu.
- Ikastetxeak matxuratutako ordenagailu txikia gordeko du edo Garbigunera eramango du.

Azkenik, ikastetxeak erabakiko du ekipoa ordeztearen kostua ordaintzeko modua, Antolakuntza eta Jarduera Araudia aplikatuz.

5.- HARREMANAK

www.eskola20.euskadi.net webgunean ikusgai izango da ESKOLA 2.0 programari buruzko informazio eguneratua.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 22a.

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

M^a Antonia Ozcariz Rubio

ERANSKINA**Ekipoa maileguz emateko dokumentua**

2010/2011 ikasturtean Eskola 2.0 programako ordenagailu txiki eramangarria hezkuntza-erabilerarako laga, zaindu eta mantentzeko konpromisoa

Ikastetxearen datuak			
Izena		Kodea	
Helbidea		PK	
Herria		Udalerria	
Helbide elektronikoa		Telefonoa	
Ikaslearen datuak			
Izen-abizenak		NAN	
Tutorea		<input type="checkbox"/> Aita/Ama <input type="checkbox"/> Legezko tutorea	
Ordez kariaren izena		Ikasturtea/Gela	
Etxeko helbidea		PK	
Herria		Udalerria	
Helbide elektronikoa		Telefonoak	

Dokumentu hau sinatzearen bidez, goiburuan adierazitako datuen jabe den ikaslearen ordezkariak —bere eta familiaren izenean— eta ikasleak onartzen dituzte ekipoa hezkuntzarako erabiltzeko, zaintzeko eta mantentzeko arauak, eta arauok beteko dituztela hitzeman dute. Ekipoa nominalki emango zaie ikasleei, Eskola 2.0 programaren barruan. (Ikus Arauak atzealdean)

Esleitutako ordenagailu txiki eramangarriaren serie-zenbakia idaztea

<p>Egiazta ezazu adierazitako serie-zenbakia bat datorrela, zehazki, ekipoaren oinarrian ageri denarekin. Zenbakia desberdina bada, jakinarazi ikastetxeko arduradunei, zuzen dezaten. Serie-zenbakirik ez badago, idatz ezazu eskuz, eta egiaztatu bat datorrela, zehazki, ekipoaren oinarrian ageri denarekin.</p>	<p>Ikasleari esleitutako ordenagailu txiki eramangarriaren serie-zenbakia:</p>
--	--

Serie-zk. bat dator ekipoarekin

Serie-zk. ez dator bat eta desberdintasunen berri eman dut

....., 2010ekorena.

Izenpetua:

Tutorea
eta ikastetxeko zigidua

Aita, ama edo legezko ordezkaria

Ikaslea



Ekipoa hezkuntzarako erabili, zaindu eta mantentzeko arauak

- 1.- Ordenagailu txiki eramangarria ikasleek ikasgelan hezkuntzarako erabiltzeko da. Ordenagailuarekin irakasleek programaturiko eskolako jarduerak egingo dituzte, eta ikastetxean bertan erabiliko dute, lehentasunez. Hala ere, etxera eraman ahalko dute, beharrezko baimenarekin.
- 2.- Ikasleak eta familiak hitzemango dute ekipoa egoera onean mantenduko dutela, eta ez dutela aldatuko ez ordenagailuaren kanpoko itxura, ez eta sistema-eragilearen konfigurazioa eta instalatutako beste programarik ere. Hortaz, ordenagailu txiki eramangarria erabiltzeko honako arau hauek bete beharko dituzte:
 - a) Ordenagailu txiki eramangarria beti zorroan behar bezala gordeta eraman.
 - b) Ordenagailu txiki eramangarria zaindu hezetasuna, beroa, hotza, eguzki-argi zuzena, hautsa eta, bereziki, likidoak dauden tokietan egon ez dadin.
 - c) Kontu izan ekipoa kolperik har ez dezan edo eror ez dadin, eta ez jarri objektu astunik gainean.
 - d) Ez eutsi ekipoi pantailatik, eta ez kolpatu edo arrastorik egin inolako objektuekin.
 - e) Ez manipulatu ekipoko inolako elementurik, eta ez saiatu halakorik konpontzen (kargagailua eta bateria barne). Soilik jatorrizko kargagailua erabili.
 - f) Ordenagailu txiki eramangarria aldi-aldi garbitu, oihal leun batekin, beti itzalita dagoenean. Arreta berezia jarri pantaila garbitzean; ez erabili bereziki pantaila garbitzeko ez den produktu kimikorik.
 - g) Ez instalatu ikastetxeak baimendu gabeko jolas, programa edo edukirik.
 - h) Agindutako eskola-lanei loturiko informazioa baino ez gorde ekipoa.
 - i) Ez sartu zure adinerako baimenduta ez dauden baliabideetan eta, bereziki, webguneetan.
Horri lotuta, familiaren erantzukizunpean izango dira ikasleek ordenagailu txiki eramangarrian ikusiko dituzten edukiak, ordenagailua ikastetxetik kanpo dagoenean.
 - j) Ordenagailu txiki eramangarriaren bateria beti kargatuta eraman ikastetxera.
 - k) Ikastetxeari jakinarazi ekipoa ikasgelara beranduago ekarriko baduzu, bai eta aurreikusitako eskola-aldietan erabiltzea eragotziko duen edozein jazoera ere.
 - l) Bete ikastetxeak edo irakasleek ekipoa hezkuntzarako erabiltzeko ezarriko dituzten berariazko arauak.
- 3.- Halaber, familiak betebeharrak hauek izango ditu:
 - a) Ikastetxeko irakasleekin batera lan egin hezkuntza digital segurua eta arduratsua izan dadin.
 - b) Zaindu semeak edo alabak ekipoa erabili, zaindu eta mantentzeko Arau hauek eta ikastetxeak eta bertako irakasleek ezarriko dituzten berariazko arauak bete ditzan.
 - c) Semeak edo alabak ekipoa nola erabiltzen duen gainbegiratu, eta elkarrekin lan egin lanak irakasleak agindu bezala egin ditzaten; interesa erakutsi seme-alaben ohitura digitalekiko eta, bereziki, arreta jarri ikusten dituzten webgune-motetan, webguneen edukietan eta ibiltzen diren sare sozialetan.
 - d) Sustatu Internet hezkuntzarako erabil dezaten eta sarea erabiltzen duten gainerako pertsonak errespetatu ditzaten.
 - e) Jakinarazi ikastetxeari ordenagailu txiki eramangarriak ikasleen etxean edo ikastetxetik kanpo beste edonon dagoenean izan ditzakeen matxurak edo akatsak.
 - f) Konponketa-gastuak ordaindu, bermean sartzen ez diren matxurak gertatzen direnean.
 - g) Ordenagailu txiki eramangarriaren ordezkia ekarri baldin suntsitzen, lapurtzen edo galtzen bada ekipoa familiaren ardurapean dagoen bitartean.
 - h) Behar denean, ekipoa itzuli jaso zen uneko egoera beren; behar bezala erabiltzearen ondoriozko hondatze normala onartuko da.